
HODEI

ESSENTIA

GURE ESENTZIA BIZITAKO GUZTIAREN BATURA DA







MAGIA SARI NAZIONALA 2025

3. Saria Magia Orokorra kategorian
XL. Kongresu Magiko Nazionala (Terrassa)

WWW.MAGOHODEIMAGOA.COM

HUNKITZEN DUEN MAGIA IKUSKIZUNA

SINOPSIA

Hodeik (2025eko Magia Sari Nazionala) ESSENTIA aurkezten du, magia ikuskizun harrigarri, parte-hartzaile eta bisual bat, maila goreneko ilusionismoa, umorea eta clown hizkuntza uztartzen dituena publiko guztientzako proposamen batean.

Eszenaratze zaindu batekin eta inpaktu handiko ideia modernoekin, ESSENTIA (latinetik: esentzia) gure ingurua eta gaur egun garen hori ezagutzeko gonbidapen magiko bat da, gure izaeraren parte den pieza bakoitza aurkitu eta ulertzeko.

Magia emozio bihurtzen duen esperientzia partekatua!



ZER DA ESSENTIA

ESSENTIA diziplina anitzeko ikuskizuna da, Odei Domingok sortua: ilusionista, aktore, umorista eta showmana. Bertan magia, antzerkia, clowna eta komedia fisikoa uztartzen dira.

Magia desberdin baten etengabeko bilaketan, harridura sortzeaz gain komunikatzeko eta eduki narratibo bat transmititzeko gai dena, proposamen honetan urrundu egiten da aurreko formatuetatik; zeinetan fokuen azpian, agertoki handietan eta bere ikuskizuna posible egiten duten objektu ugariz inguratuta ikusi dugu.

Kasu honetan, Hodeik horren kontrapuntua aurkezten du. Bere bertsiorik hurbilena: bera bakarrik, objektu gutxi batzuen laguntzaz, ordubetez jolastuko da bere alderdirik ganberroenean eta, aldi berean, intimo eta pertsonalenean.

Magiak gure 'Essentia' osatzen duten geruza ezberdinei buruz hitz egingo du: gure ingurua eta hura osatzen duten pertsonak baloratzen jakiteaz, gure gaitasunez (askotan ahaztu egiten zaizkigun arren, hor daudenak, gu bakarrak egiten gaituztenak), egiten dugunaren jatorriaz, baita gaur egun ibiltzen dugun bidera eraman gaituzten erabaki eta orbain txikiez ere.

Formatu txikiko proposamena, edozein espaziotan antzezteko egokia, bai espazio itxietan bai kalean eta adin guztietara zuzendua.

Hodei izeneko pertsonaia honek barnean daraman guztia, fikziozko gauza gutxi eta errealitate asko duena.





TEASERRA

Ezagutu ikuskizunaren teaserra: egin klik hemen.



IBILBIDEA

Hodei magia teatralean espezializatutako ilusionista da, 2014tik helburu eszeniko argiarekin ikuskizunak garatzen dituena, non magia mezuaren zerbitzura tresna narratibo gisa integratzen den.

Bere lana magia garaikide baten etengabeko bilaketan oinarritzen da, gaur egungo ikuslearekin konektatzeko eta, esperientzia partekatu bat sortzen duten ekoizpenen bitartez, harekin emozioaren bidez elkarrizketa sortzeko gai dena.

Haurtzarotik antzerkiarekin loturiko prestakuntza eta ibilbidea izanik, bere proposamenek testua, keinu-komedia eta eszenaratze zaindua uztartzen dituzte.

2025eko uztailean 3. Magia Sari Nazionala jasotzen du (Magia Orokorra kategoria), Terrassan ospatutako XL. Magia Kongresu Nazionalean.

NABARMENAK

Espainiako Ilusionismo Elkarteko kide 2011tik, 2014an bere konpainia propioa sortzen du, zeinari esker hortik geroztik plazak eta antzokiak bisitatzen gelditu gabe ibili da.

Bere proposamen propioetaz aparte, konpainia desberdinekin korpodukzio eta kolaborazioak egin izan ditu, hainbat ikuskizun familiarretako protagonista izanda, baita musikalak ere non, magia egiteaz gainera, abestu, dantzatu eta interpretatzen zuen.

Konpainia artistiko, ekoizpen eta ekitaldi desberdinentzako aholkulari magikoa da. Honetaz gain; telebista kate, udaletxe, erakunde eta maila nazionaleko enpresentzako proposamenak pertsonalizatu ditu. Bere enpresentzako ideia pertsonalizatuak Frantzian, Portugalen eta Alemanian burutu dira; Marta Nietok edo Jose Coronadok protagonista dituzten zinemako filmetan ikusi dira eta 5000 pertsona aurrean pabiloietan antzeztu dira.

Bere ikuskizunak antzoki sare nazional ugaritan programatu dira, hala nola positiboki baloratuak izan dira zirkuitu, programa eta jaialdietako komisio artistikoengatik. Coca-Cola, Port Aventura, Sercotel, Atresmedia, Tornasolmedia edo Nespresso bezalako enpresentzako lan egin du.

NAFARROA ESZENAko (nafarroako ekoizpen eszenikoko enpresen elkarteko) kidesortzailea eta lehendakaria da eta FAETEDAko (antzerki eta dantza enpresen elkartetako federazio nazionaleko) asanbladako kidea da.

TELEBISTA

Online ikusi.

IRRATIA

Online ikusi.

PRENTSA

Online ikusi.



IKUSKIZUNAREN INFORMAZIOA

Diziplina: Magia · Antzerkia · Clowna
Publiko mota: Familiarra eta heldua
Adin gomendatua: 5 urtetik aurrera
Hizkuntza: Euskara edo gaztelania
Iraupena: 60 minutu

BEHAR TEKNIKOAK

Gutxieneko neurriak: 5 m zabalera
4m sakonera
3m altuera

Aretoan: Espazioko teknikari baten asistentzia

Kalean: 4/6 hesi mugatzeko

Besteak: 220V korronte-hargunea
Ibilgailu baterako aparkalekua
Kamerinoa
Gomendagarria publikoa eserita

Muntaia 2 ordu / Desmuntaia ordu bat

HODEI

ESSENTIA

WWW.MAGOHODEIMAGOA.COM

INFO@MAGOHODEIMAGOA.COM

+34 646 236 649



FAETEDA